

"Tourrera joateko aukerak ditut"

24 urte beteko ditu laster ermuar txirrindulari gazteak. Hemen ez zuen profesionaletara jauzia egiteko talderik bilatu eta Italian heldu zitzaien aukera. 2 urtez Italiako LPR taldean aritu ostean, aurten Euskaltel-Euskadi taldearekin 2 urterako kontratua sinatu du. Denboraldia indartsu hasi du eta Tourrera joango diren 9 txirrindularien artean izateko aukera asko ditu.

-Italian 2 urte pasa dituzu...

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Askok ikasi dut bai pertsona eta kirolari bezala. Apartamentu batean bizi nintzen, etxetik urruti, lasterketetan ere lehiakortasun handia... Orain naizenaren zati handiena han egindako egonaldien ondorio da.

-Euskaltel-Euskadi noiz hurbildu zitzaizun?

Iazko Euskal Bizikletan eta Asturiaseko itzulian ondo ibili nintzen eta, Euskaltel-Euskadikoak hurbildu zitzaizkidan irailean. Akordio batera iritsi ginen eta 2 urtetarako sinatu genuen.

-Denboraldia ondo hasi duzu...

Mallorcan hasi ginen, ondoren Paris-Niza, Euskal Herriko Itzulia, Nazioarteko Kriteriuma... gelditu gabe ibili naiz. Julianek UCI-Pro-Tourreko lasterketetan izango nintzela esan zidan eta horretara bideratu dugu denboraldia.

-Zein sentsazio izan dituzu?

Oso onak. Nabari da UCI-ProTour mailako lasterketetan arinago doala tropela baina ondo egonez gero, horri ere aurre egingo diogu.

-Entrenamenduak gogorrak dira?

4 ordu inguru egunean. Eta gimnasioko orduak. Entrenatzeko gogo eta motibazioa egunero izatea da gogorrena. Baina hau gure ogibidea da, gustatzen zaigulako gabil-tza honetan.

-Orain Giroa dago, laster Tourra...

12 txirrindulari gaude 9 posturako. Mayo eta Zubeldia izan ezik gainontzekoen postuak, Dauphine dLibere eta Euskal Bizikletan ematen dugun mailaren arabera erabakiko dira. Aukerak baditudala uste dut.

-Zer nolako taldea duzue?

Taldea gaztea da. Badira beste batzuk esperientzia gehiago daukatena eta guretzat hori oso garrantzitsua da. Orekatu egiten dute taldea.

-Euskaltelek 2008ra arte babesle izaten jarraituko duela esan du...

Horrek lasaitasuna ekarri du taldera. Askok aurten amaitzen zuten kontratua eta horrekin arazo asko saihestu dira. Orain emaitzak behar dira guregan jarritako konfiantza indartzeko.



-Etxeko taldea izateak presioa areagotzen du?

Bai. Gertatu da, ezjakintasunak eraginda edo, jendearen aldetik kritika zorrotzak jasotzea, ez dugula emaitzarik lortzen, alperkerian gabiltzala... Era berean, ulertzen dut etxeko taldea izanda, ahal den eta lehiakorrena izan dadin eskatzea.

-Garaipen bat amesten hasita?

Zalantzarik gabe Tourrean, nahiz eta hori oso zaila den. Tourreko azken etapan Eliseo Parkean zehar birak ibiltzea ere, oso polita dela esan didate.

-Igor Astarloa eta Pedro Horrillo han izan dira...

Askok hitz egin didate hango kontuez. Maisu onak izan dira biak mundu honetan zer aurkituko nuen aurrez jakiteko.

Asier Ibaibarnaga



943172665
ERMUA

Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...

eta hostalarien umore ona